

JAUTARKOL OLERKI SARIAK



LEHENENGO SARIA:
"Elearen Iraultza"

IZENGOITIA:
Beñat Borda

IZEN ABIZENAK:
Lander Zurutuza
Sunsundegi

LEZO



BIGARREN SARIA:
"Elutsa"

IZENGOITIA:
Iturburu

IZEN ABIZENAK:
Jexux Aizpurua
Barandiaran

IRUN



ERRENTERRIAKO ONENARI:
"Gauari negarra"

IZENGOITIA:
Aniz

IZEN ABIZENAK:
Garazi urdanpilleta
Amiano

ERRENTERIA

ELEAREN IRAULTZA

Ele bat
hegaldatau da
olerkiaren erresumatik,
biziki handia den
zerbaiten bila
abiatzeko,
hots,
itsaso bazterreko
hegazti baten
askatasuna
erdiesteko.

Preso
bait zeukaten
liburu hautsezatuan
ezkutatuta,
olerki estu
zein
ilun baten
baitan.

Pozik doa
itsasoa bukatu
eta
lurra hasten den
gunera,
heriotzarik ezean
oro
bizitza den
unera.

Amildegiko
hegazti basak
ditu
horretan
bidaia-lagun.

Askea da
jada
elea,
idazlearen irudimena
gibelean utzita,
geroa du
berea.

ELUTSA

Gura badun
errazan
duana
inori esanen ez dioana
jaregin gaitzan egiak
Metropoliaren txinparten
atzaparretatik

Baninan leihoko beha
belatzen basura
mailoen oskorria.
Ene behatoki soa
erroaren katea
hari malgu maratza
bere izpiez hausnartzen
ninduen.

Baninan udan
lizarraren geriza
eta neguan
eki leuna
muinoan zinan sorgune
hariztian etzanleku...

Eta
badinat leihoko beha
zementuaren lurrina
gasolinazko hots-hatsa.
Ene behatoki hitsa
Oteitzaren huts hustua
ezaren maratila
galeraren mataza
hondoaren uholdez
hondartutako harkaitza

Non ziagon
ene begion ninia?
Hormatzarrak irentsi din
kotxe katramilaren
zurrunbiloetan
Lizarraren lekuan
garabia dakusanat
baziabilen ibil eta ibil
adreiluzko festa
hondar orez horditua
gora eta gora
teilatuan gailurtzeko

Buruko mina zeginat
ene beha oskarbia
ekaitz kolorez jantzia
eta
egutera
laiotzaren otzaretan
uztarri unatu bilakatu baitun

Baninan leihoko beha sotila
Badinat leihoko so hila

GAUARI NEGARRA

Biluzik
aurkitu ninduzun,
GAU
beltz eta ekaiztsu,
itxaropen eguzkirik gabeko
ostotsezko
GAU anker.
Eta ni,
beldurrak airean,
negar batean.
Oharkabean
aurkitu ninduzun,
GAU,
eta zure so ilunez,
zure hitz zorrotzez,
zure esku hotzez
mintzatu zitzaizkidan.
Eta ni,
beldurrak airean,
negar batean.
Laztan bortitzez
egin ninduzun zure.
Nire anpuluak
haizeak ebasten zituen
muxu latzez gorputza
zauritzen zenidan bitartean.
Eta ni,
beldurrak airean,
negar batean.
Intziriak zintzurrean
itotzen zitzaizkidan,
erdeinuaren garra bihotzean
irazekitzen zitzaidan bitartean.
Eta ni,
beldurrak airean,
negar batean.
Eta hotzikarez
arima ere
ikararen doinupean
dantzatzen ari zitzaidanean,
gorputza ferekaz
lohitzen zenidanean,
ezintasunaren arrak
barrenak jaten zizkidanean
eta betirako iraungo duen
oroitzapenaren
zirriborro beltza
sortzen ari zitzaidanean,
dohakabe egin ninduzun,
goiza iratzarri zen artean.